# FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresak hainbat motatako baliabideak ditu: fisikoak, intelektualak, giza baliabideak eta finantza-baliabideak. Orain, gure enpresak dituen baliabideak zerrendatzen ditugu, motaren arabera:

**Baliabide fisikoak:**

| |
|---|
| Lokala (saltokia) |
| Sistema informatikoa |
| Altzariak<br>- 6 artxibategi<br>- 4 armairu<br>- 4 artxibategi<br>- 20 bonbila<br>- 7 hormako erloju<br>- 12 mahai<br>- 12 aulki<br>- 60 aulki<br>- 6 arbela<br>- 1 Inprimagailu |
| Ikastaroak emateko materialak<br>- Liburuak<br>- 5 inprimagailuaren tinta<br>- 10 pakete orri<br>- 10 pakete boligrafo<br>- 5 pakete azpimarragailu<br>- 10 pakete arbelako errotulki<br>- 18 arkatz<br>- 20 zorrozkailu<br>- 20 koaderno<br>- 20 karpetak<br>- 12 tipex<br>- 20 borragoma<br>- 8 grapagailu<br>- 20 grapa kutxa<br>- 9 zinta itsasgarri<br>- 15 artxibategi |

**Baliabide intelektualak:**

- Datu-basea
- Webgunea

**Giza baliabideak:**

- Gure langileen ezagutza akademikoa
- Gure teknikarien informatika eta webgunei buruzko ezagutza

**Finantza-baliabideak:**

- Aurrezkiak
- Crowdfunding-a
- Bi maileguak (banku desberdinak)
- Ikastaroen salmenta

**Baliabide intelektual**en barruan, webgunea eta datu-basea daukagu. Alde batetik, webgunea gure ikastaroak emateko eta saltzeko, hau da, gure lan eremuetariko bat da. Datu-basea bezeroen datuak eta enpresaren informazioa ditu eta oso ondo babestuko ditugu horiek bi era desberdinetan gordetzen: bata dokumentu fisikoak bezala eta bestea, dokumentu elektronikoak bezala gure zerbitzarietan. Enpresak handitzen duenean, gure marka ere gehituko genuke. Horretarako, Patente eta Marken Espainiako Bulegoaren webgunean sartuko ginateke eta gure marka ofizialki erregistratzeko dokumentuak beteko genituzke. Gainera, tramite guztiak interneten bitartez egiten baditugu, ordainketa txikiago bat egingo genuke, webgunean aurkitutako dokumentu honen arabera.

**Giza baliabideak** izango lirateke gure langileen eta teknikarien ezagutza akademikoa eta webgunei buruzko ezagutza. Hori enpresaren funtsezko zati bat da; izan ere, horren araberakoa da ikastaroak sortzea eta web-orria mantentzea. Langileak sare sozialen bidez edota Lanbideren zerbitzua erabiliz ezagutuko genuke eta gero, gutako batek elkarrizketak egingo die. Azkenean, langileak konparatuko ditugu eta bazkide guztien artean erabakiko dugu nor kontratatu.

**Finantza-baliabide**en artean, gure aurrezkiak eta bi banku desberdinekin eskatuko ditugun maileguak daukagu. Halaber, crowdfunding-a eta ikastaroen salmenta daukagu. Azken bi hauek, diru-iturri horiek finko mantenduko dira, eta enpresak dirua lortzen duen modukotzat hartuko dira. Dena dela, finantza-baliabideak sakonago azalduta daude “diru-sarreren fluxuak” izeneko dokumentuan.

